

ARGI IZPIAK

Maria Illarramendi Uribetxeberria

Zestoa

Nork dio unibertsoaren mugetatik haratago ezereza dagoela? Eta zer ote da ezereza? Egia esan, 12 urte soilik ditut, eta ez nintzateke gai izango hau zuri azaltzeko. Baina hitz gutxitan esanda, ezereza eta bakardadea zen Irunek sentitzen zuena, ama, aita eta amona galdu zituenean.

Irone 16 urteko neska txiki bakarti bat zen, isila, zintzoa eta azkarra. Udako belar freskoaren koloreko begiak zituen, eta urrezko ile distiratsua. Arbuaranen bizi zen, Euskal Herriko herri txiki eta xume batean, bere amona Isabelekin. Herritar guztien esanetan, Isabel gaztetan Iruneren berdinberdina zen fisikoki, izaeraz guztiz desberdinak ziren arren, Isabel berritsua, barregarria eta oso xeblea baitzen. Irunek amonarekin lotzen zuen Arbuaran, bere alaitasun berbera zuelako, bizipoz handia igorriaz bere txikitasunean.

Irunek ez zuen apenas gurasoen oroitzapenik, honek 4 urte zituenean galdu baitzituen biak, auto istripu baten ondorioz. Nahiz eta umezurtza izan,

berak amona zuen zortez, bere ama moduan hartu zuena txiki-txikitatik.

Zenbat momentu eder pasa zituzten batera... Nahiz eta Iruneren haurtzaroa oso gogorra, zaila eta oztopoz jositakoa izan, amona zuen erortzen zen bakoitzean zutik jartzen laguntzeko. Ene bada... Zer egingo ote zuen Irunek bere bihotzeko amonarik gabe?

Udazkena iritsi zen, eta zuhaitzek hostoak galdu zituzten modu berean, Isabel oroimena galtzen hasi zen apurka-apurka. Irune kezkatzen hasia zen, eta amonari bere izena ahaztu zitzaion momentuan, Irunek herriko medikuarengana jo zuen. Medikua alzheimerra diagnostikatu zion, eta sendagairik gabeko gaixotasuna zela esan zion Irineri. Apurka-apurka, guztia ahaztuko zitzaiola azaldu zion neskari, azkenean hitz egiteko, esertzeko eta irensteko gaitasuna ere galdu arte.

Irunek ezin zuen sinetsi gertatzen ari zitzaiona. Bat-batean, lurreko zulo sakon eta ilun batera erori zela iruditu zitzaion, ezerezez eta bakardadez beteriko zulo batera; baina, oraingoan, bere amona falta zitzaion eskua eman eta zutitzen laguntzeko.

Arbuaranen egoitzarik ez zegoenez, gertuen zegoen egoitzara eraman zuten Isabel. Irune, berriz, umezurztegi batera eraman zuten, bere amonarengandik oso urrun. Inoizko agurrik zailena iruditu zitzaion neskari, eta momentu horretan, drama film bateko protagonisten paperean ikusi zuen bere burua.

Irunek bakarrik eta oso goibel sentitzen zen, Marta eta Luis izeneko bikote bat ezagutu zuen arte. Marta suzko ile kizkurra zuen emakume eder bat zen, eta bere begi handietan beti ikus zenezakeen irribarrea. Luisek ere ile marroi argia zuen, ia gorria, eta serio samarra izan arren, oso zintzoa zen. Bikotea umezurztegia bisitatzerako joan zen lehen egunetik ikusi zuen Irunek itxaropena beraien begietan. Udako oporretan beraien etxera joateko gonbidapena egin zioten Iruneri, abuztuko lehen hamabostaldian.

Hasieran, egunak oso luzeak egiten zitzaizkion Iruneri. Marta eta Luisen etxean, bakoitza bere bidetik zihoan. Baina, apurka-apurka, konfiantza lortu zuten, beren arteko harremana sendotuz.

Horrela, arratsalde batean, karta jokoan zebiltzala, Martak hau esan zion Iruneri:

—Irunek, Luis eta biok zuri buruz hitz egiten aritu gara, eta etorkizun zaila datorkizula iruditzen zaigu. Hamasei urte dituzu, ia hamazazpi, eta hemezortzi urterekin umezurztegitik botako zaituzte. Autonomoa izan beharko zara, zeu bakarrik moldatu, eta zerbitzu sozialetara joan ezean, kale gorrian geratuko zara. Zuregan dugun kezka eta maitasuna ikusita, zu adoptatzea erabaki dugu. Horrela, laguntza behar duzun guztietan, gu egongo gara zurekin, zure guraso bihurtuko gara, eta gure etxea izango duzu babesleku, behar duzun guztietan. Horretarako ordea, zure baimena behar dugu. Zer diozu?

Irone gizakien artean zegoen txindurri baten moduan sentitzen zen, guztiz galduta, eta zer egin jakin gabe. Egoera guztiz berri eta desberdin bat zen bera aurkitzen zena, eta ez zuen inolaz espero.

—Bihar arte itxarongo dut. Esango dizuet, baina honen inguruan hausnartzea behar dut. Eta orain, axola ez bazaizue, nire logelara noa. Hau esan, eta eskaileretan gora abiatu zen.

Martaren begietako irribarrea itzaltzen joan zen pixkanaka. Ulertzekoa zen Iruneren erreakzioa, baina bere erantzuna entzuteko jakin-min handiz geratu ziren biak. Bitartean, Irune bere ohean etzanda zegoen, bi hankak burko gainean jarrita, eta begirada sabaian iltzatuta. Martak esandako guztiaren inguruan pentsatzen zegoen, erabakia hartzeko prest. Arrazoa zuen esandako guztian, baina bere barneko alderdi gogor eta egoskor batek ez zion aurrera pausorik ematen uzten. Geratzen zen arratsalde tarte guztian buruari birak ematen ibili arren, afalordurako ez zuen ezer erabaki. Egun hartan, afaldu gabe lokartu zen.

Hurrengo goizean, piper puntu batekin esnatu zen Irune. Bere bi hankek burko gainean jarraitzen zuten, eta sabaira begira zegoen. A zer nolako loa egin zuen! Gau osoan ez zen mugitu ere egin. Jada bai, erabakia hartzeko prest zegoen. Eskailerak jaitsi eta gosaltzera joan zen. Bertan zituen zain Marta eta Luis. Irunek esan beharrekoa esan zien, eta Martari irribarrea piztu zitzaion berriro begietan.